NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia | Iruña, 2020ko maiatzaren 21a | 56. ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:
Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:
—Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkuraren zein Batzordeen bilkura telematikoak egiteko jarraibideak (2. or.).

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkuraren zein Batzordeen bilkura telematikoak egiteko jarraibideak.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko maiatzaren 18an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusita Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkuraren zein Batzordeen bilkura telematikoak egiteko jarraibideak, Legelari Nagusiak Mahaiari eta Eledunen Batzarrari igorriak, eta Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 37. artikuluarekin bat, ERABAKI DA:

1. Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkuraren zein Batzordeen bilkura telematikoak egiteko jarraibideak onestea.

2. Erabaki hau eta aipaturiko jarraibideak Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezen agintzea.

Iruñean, 2020ko maiatzaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Batzordeen bilkura telematikoak egiteko jarraibideak

Nafarroako Parlamentuan jarduera presentzialera itzultzeari buruzko Kontingentzia Planean ezartzen denez, Parlamentuko organoek zilegi izanen dute bilkura presentzialak, ez-presentzialak edo mistoak (presentziala eta bideokonferentziazkoa) egitea.

Saio ez-presentzialak eta mistoak (presentziala eta bideokonferentziazkoa) Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduaren arabera garatuko dira. Erregelamendu horrek, besteak beste, aurreikusten du ezen kasuan kasuko batzordearen esparruan, bai mahaiak, bai mahaiko kideek, analogiaz, erregelamendu honetan Legebiltzarreko Mahaiari eta haren kideei ematen zaizkien eginkizunak beteko dituztela. Halaber, batzordeburuei dagokie lanak koordinatzea, ongi doazela segurtatzea, eztabaidak zuzentzea eta horietako ordena gordetzea (40. eta 83. artikuluak).

Bilkura horiek telematikoak edo mistoak izanen dira, eta haietan parte hartuko dute batzordekide guztiek, agerraldia egiten duen kontseilariak eta haiei lagunduko dien legelariak.

Bilkura horietan, bozketa publikoa eginen da, banan-banan deituta, Erregelamenduko 101. artikuluak ezartzen duenari jarraituz.

Bat-bateko matxura tekniko bat gertatuz gero, parlamentari bati eragotzi egiten diona parte hartzea, dela bideokonferentziaz dela segimendua, eztabaida eta bozketa bermatzeko egokiak diren bestelako sistema teknikoen bidez, eten eginen da bilkura, non eta kasuko parlamentariak ez duen modu fede-emailean adierazten baimendu egiten duela bilkurak jarraitzea.

Bilkura telematikoan sartzeko prozedura ondoko izanen da:

1. Batzordearen deialdia jasoko duzu eta bertan bi esteka agertuko dira: bata, aretoko jatorrizko soinua entzun ahal izateko (hizlariaren ahotsa entzuten da, mintzatzen den hizkuntzan) eta bestea, itzulpenaren soinua entzuteko (kasuan kasuko itzulpena entzuten da). Bietako bat aukeratu beharko duzu. Esteka bakoitza kasuko deialdirako bakarrik izanen da.

Aldi baterako esteka izanen da eta, horrenbestez, deialdian adierazten den egunean egin beharko duzu bat bideokonferentziarekin.

Atzerapenak saihesteko, deialdian ezartzen den ordua baino hamar minutu lehenago egin beharko duzu bat bideokonferentziarekin.

Hasiera batean “itxaron gela” batean egonen zara, bilkura hasi aurretik eginen den bileran onartua izan arte.

2. Bilkura telematikoaren garapena. Batzordeburuek bilkura betiko moduan gidatuko

dute. Hala, parlamentariak hitza ematen zaienean bakarrik mintzatuko dira.

3. Foru parlamentariek ezin izanen dute hitz egin baldin eta, aldez aurretik, lehendakariari hitza eskatu eta hark eman ez badie (NPEaren 84. art.). Eztabaida-txandetan mintzatu ahal izateko, hizlariak txanden hasiera baino lehen eskatu beharko du hitza. Hori dela eta, gomendatzen da bilkura hasi baino lehen batzordeburuei posta elektroniko bidez jakinaraztea nortzuk parte hartuko duten talde parlamentario edo foru parlamentarien elkarte bakoitzaren ordezkari gisa.

4. Bozketaren bat egin behar bada, bozketa publikoa izanen da, parlamentariei banan-banan deituta, Erregelamenduko 101. artikuluak ezartzen duenari jarraituz.

Parlamentariei banan-banan deituta egindako bozketa publikoan idazkariak foru parlamentarien izenak esanen ditu, eta haiek “bai”, “ez” edo “abstentzioa” erantzunen dute.

Deia lehen deituren alfabetoko hurrenkeraren arabera eginen da. Mahaikideak azkenak izanen dira botoa ematen.

Bilkura mistoa bada, hein batean presentziala eta beste hein batean telematikoa, osoko bilkuren aretora bertaratzen ez diren parlamentariek bideokonferentziaz parte hartuko dute hala dagokienean.

5. Batzordeburuaren postua bete gabe badago, batzordeburua ez badago edo ezin badu parte hartu, bera ordeztuko duenari jakinarazi beharko dio Erregelamenduan (51. art) ezarritakoaren arabera.

6. Gainerako batzordekideak ordezteko, ordeztu behar den parlamentariak ordezkoari birbidali beharko dio deialdia, eta batzordeburuari eta Batzordeari laguntzen dion legelariari jakinarazi beharko die posta elektronikoaren bidez bilkura hasi baino lehen.

7. Bat-bateko matxura tekniko bat gertatuz gero, parlamentari bati eragotzi egiten diona parte hartzea, dela bideokonferentziaz dela segimendua, eztabaida eta bozketa bermatzeko egokiak diren bestelako sistema teknikoen bidez, eten eginen da bilkura, non eta kasuko parlamentariak ez duen modu fede-emailean adierazten baimendu egiten duela bilkurak jarraitzea.

8. Matxura teknikorik gertatuz gero, Nafarroako Parlamentuko zerbitzu informatikoei deitu beharko zaie.

9. Arazo teknikorik gertatuz gero, bilkurarekin jarraitzeko baimena modu fede-emailean adierazi-ko diote Lehendakaritzari edo Osoko Bilkurari laguntzen dion legelariari, posta elektronikoz, telefonoz edo jakinarazpen jaso dela ziurtatzeko balio duen beste edozein bitarteko erabiliz.

Osoko Bilkuraren bilkura telematikoak egiteko jarraibideak

Nafarroako Parlamentuan jarduera presentzialera itzultzeari buruzko Kontingentzia Planean ezartzen denez, Parlamentuko organoek zilegi izanen dute bilkura presentzialak, ez-presentzialak edo mistoak (presentziala eta bideokonferentziazkoa) egitea.

Bilkura ez-presentzialak edo mistoak (presentziala eta bideokonferentziazkoa) Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoari jarraikiz eginen dira.

Bilkura horiek modu mistoan eginen dira, halako moduz non hein batean presentzialak izanen baitira eta beste hein batean telematikoak, eta Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoari jarraikiz eginen dira.

Osoko bilkuren aretora bertaratzen ez diren parlamentariek bideokonferentziaz parte hartuko dute hala dagokienean.

Bilkura horietan, bozketa aurretiazko botoeskuordetze bidez egin ahalko da, Erregelamenduko 94.2.b) artikuluak eta lehendakariaren 2020ko martxoaren 24ko 28/2020 Erabakiak xedatuari jarraituz (Foru parlamentarien botoeskuordetzeari buruzko erabakia, Covid-19 koronabirusak sorturiko osasun-larrialdiko krisiari erantzutekoa; 38. NPAO, 2020ko martxoaren 25ekoa).

Bat-bateko matxura tekniko bat gertatuz gero, parlamentari bati eragotzi egiten diona parte hartzea, dela bideokonferentziaz dela segimendua, eztabaida eta bozketa bermatzeko egokiak diren bestelako sistema teknikoen bidez, eten eginen da bilkura, non eta kasuko parlamentariak ez duen modu fede-emailean adierazten baimendu egiten duela bilkurak jarraitzea.

Bilkura telematikoan sartzeko prozedura ondoko izanen da:

1. Osoko Bilkuraren deialdia jasoko duzu eta bertan bi esteka agertuko dira: bata, aretoko jatorrizko soinua entzun ahal izateko (hizlariaren ahotsa entzuten da, mintzatzen den hizkuntzan) eta bestea, itzulpenaren soinua entzuteko (kasuan kasuko itzulpena entzuten da). Bietako bat aukeratu beharko duzu. Esteka bakoitza kasuko deialdirako bakarrik izanen da.

Aldi baterako esteka izanen da eta, horrenbestez, deialdian adierazten den egunean egin beharko duzu bat bideokonferentziarekin.

Atzerapenak saihesteko, deialdian ezartzen den ordua baino hamar minutu lehenago egin beharko duzu bat bideokonferentziarekin.

Hasiera batean "itxaron gela" batean egonen zara, bilkura hasi aurretik eginen den bileran onartua izan arte.

2. Bilkura telematikoaren garapena. Lehendakariak bilkura betiko moduan gidatuko du. Hala, parlamentariak hitza ematen zaienean bakarrik mintzatuko dira.

Foru parlamentariek ezin izanen dute hitz egin baldin eta, aldez aurretik, lehendakariari hitza eskatu eta hark eman ez badie (NPEaren 84. art.). Eztabaida-txandetan mintzatu ahal izateko, hizlariak txanden hasiera baino lehen eskatu beharko du hitza. Hori dela eta, gomendatzen da bilkura hasi baino lehen lehendakariari posta elektroniko bidez jakinaraztea nortzuk parte hartuko duten telematikoki talde parlamentario edo foru parlamentarien elkarte bakoitzaren ordezkari gisa.

Osoko bilkuren aretora bertaratzen ez diren parlamentariek bideokonferentziaz parte hartuko dute hala dagokienean.

3. Matxura teknikorik gertatuz gero, Nafarroako Parlamentuko zerbitzu informatikoei deitu beharko zaie.

4. Arazo teknikorik gertatuz gero, bilkurarekin jarraitzeko baimena modu fede-emailean adierazi-ko diote Lehendakaritzari edo Osoko Bilkurari laguntzen dion legelariari, posta elektronikoz, telefonoz edo jakinarazpen jaso dela ziurtatzeko balio duen beste edozein bitarteko erabiliz.

Lege Gordailua: NA – 363-1995 ISSN: 2254–1950